

RECURSOS HUMANOS**IRAGARKIA**

Basauriko Udalaren Alkate Andreak, 2011ko otsailaren 22ko datarekin 595/2011 zenbakidun honako Dekretu hau eman zuen:

2011 urteari dagokion aurrekontu-plantillan, 2010eko apirilaren 12ko 1.285. zenbakiko Dekretuaren bidez onetsitako 2010eko Enplegu Publikorako Eskaintzaren barruan ez zeuden lanpostu hutsak daude gaur egun.

Horrenbestez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeren 23. artikulua arabera, Alkatetza honek honakoa XEDATU du:

LEHENENGOA: 2010eko apirilaren 12ko 1285. zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez onetsitako **2010eko Enplegu Publikorako Eskaintza** zabaltzea sistema irekiko Administrazio Orokorreko Eskalaren **Administrazio Azpieskalako C1 taldean** eskainitako lanpostu kopuruari dagokionez. Horrela, 2. hizkuntza-eskakizuna duten **2 administrari egon behar**ean, **4 administrari egongo dira**, hizkuntza-eskakizun hauekin: lanpostu 1 3. hizkuntza-eskakizunarekin eta 3 lanpostu 2. hizkuntza-eskakizunarekin.

BIGARRENA: Ebazpen hau BAOn eta EHHAn argitaratuko da.

Basaurin, 2011eko otsailaren 24an. **ALKATE ANDREA.**- LOLY DE JUAN DE MIGUEL